

2004KO APIRILAREN 6KO **EZ-OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta lauko apirilaren seian, arratsaldeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ez-ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Xanet Barreras Jauregi, Arantxa Zumelaga Agirre, Inazio Barandiaran Aldasoro, Kepa Goenaga Alikostes, Xabier Arrasate Aierbe eta Juan Manuel Serna Portugal.

Igor Sarriegi Zumarraga, Amagoia Naldaiz Mingo eta Gorka Lamy Intsausti zinegotziak ez dira bertaratu.

Aktan adieraziko da Inazio Estensoro Eskisabel eta Angel Oñaso Villalba zinegotziak bertaratzen direneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- S.4.1 EAN DESAFEKTAZIOA.-

Alkateak bilkurari hasiera ematen dio eta jarraian Eguneko Gai Zerrendako lehen puntua aztertzeari ekiten zaio.

Udala, Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako S.4.1eko Konpentsazio Proiektua izapidatzen ari da.

Orain proiektu horretan herri erabilera eta jabarikoa bezala kalifikatutako 91 m² tako azalerari kalifikazio juridikoa aldatzea planteatzen da, ondare ondasun edo ondasun berea kalifikazioa ezartzeko.

Alkateak esaten du lursail honen kalifikazio juridikoa aldatzearen zioa, behin aldatur gero aldameneko S.4.2-S.4.3 guneko beste lursail batekin trukaketa egin ahal izatearena dela eta trukaketa hori Construcciones Aburuza, S.A.ren jabetzakoa den lursail batekin egingo dela.

Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako S.4.1eko 91 m²ko lursailari kalifikazio juridikoa aldatzeko izapidatutako espedientea ikusi ondoren, eta gaia Hirigintza Batzordean informatua izan delarik, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuarekin, 7 lagun, eta beraz Udalaren legezko gehiengo osoaren aldeko botuarekin, zera erabakitzen du:

1.- Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako S.4.1eko 91 m²ko lursailari, bere espedientean zehaztuta dagoenari, kalifikazio juridikoa ondare edo bere izaerara aldatzeko haserako onarpena ematea.

2.- Espedientea jendaurrean jartzea hilabete bateko epean.

II.- EUSKADI ENPARANTZAKO LURSAILA ESKURATZEKO TRUKAKETA.-

Euskadi Enparantzako jabetza pribatuko lursailak eskuratzeko jabetza kentze espedientea hasi zen 2001. urtean.

Lursail horien deskripzioak eta gaur egungo jabeak honako hauek dira:

1 Zbk.dun finka.-

Higiezinaren deskripzioa: Lorenzonea edo Laurenzanea Etxea finkaren zatia den paretez itxitako baratza.

Jabeak: Maria Jose Larrañaga Sasiambarrena, Jose Angel Larrañaga Sasiambarrena, Jose Maria Echeverria Lasa eta Milagros Redrado Lapeña.

* Azalera: 205 m²

* Erregistro datuak:

- Tomoa: 1.611
- Liburua: 76
- Folioa: 214
- Finka: 123
- Inskripzioa: 18.

2 Zbk.dun finka.-

Higiezinaren deskripzioa: Ataisuarena edo Maizuarena Etxearen zatia izan zen baratza.

Jabeak: Cirila Larrañaga Areso A.ren Oinordekoak.

* Azalera: 400 m²

* Erregistro datuak:

- Tomoa: 1.611
- Liburua: 76
- Folioa: 217
- Finka: 1.367
- Inskripzioa: 4.

3 Zbk.dun finka.-

Higiezinaren deskripzioa: Lazkaoko Kontzejuko Plazaren ondoan kokatutakoa eta harri-hormazko paretez inguratutako baratza baten ifar aldearen erdia.

Jabeak: Cirila Larrañaga Areso A.ren Oinordekoak.

* Azalera: 276 m²

* Erregistro datuak:

- Tomoa: 1.611
- Liburua: 76
- Folioa: 220
- Finka: 895
- Inskripzioa: 7.

Lursailen jabeen ordezkariekin izandako elkarrizketetan, lursail hauek Orobione atzeko udal jabetako lursailean metro karratu zenbateko berdinarekin truke ematearen akordioa lortu da, eta hori horrela trukaketa hori jartzen da Osoko Bilkura honen onarpe-nera.

Honez gain esan behar da 1 Zbk.dun finkaren jabeekin trukaketa egiteko inolako eragozpenik ez litzatekela izango baina 2 eta 3 zbk.dun finken jabeek, lursail hauek jabetza erregistroan beraien izenean jartzeko Arautegi Hipotekarioak bere 205 artikuluan xedatutako espedientea jarraituz ari direla eta beraz espediente hori amaitu arte ezingo litzatekela trukaketa gauzatu. Hori horrela, hauekin hitzarmena izenpetzea planteatzen da.

Guzti honen ondoren, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuz, zera erabakitzen du:

1.- Maria Jose Larrañaga Sasiambarrena, Jose Angel Larrañaga Sasiambarrena, Jose Maria Echeverria Lasa eta Milagros Redrado Lapeñaren jabetzakoa den "Lorenzonea edo Laurenzanea Etxea finkaren zatia den paretez itxitako baratza" lursaila, 205 m²ko azalera duena, erregistro datuak: Tomoa 1.611, Liburua 76, Folioa 214, Finka 123, Inskripzioa 18., Udalaren jabetzakoa den Orobione atzeko lursaila beste horrenbeste metro karratutako lursailarengatik trukatzea, aurrez beharrezko den honen bakanketa egin ondoren.

2.- Cirila Larrañaga Areso A.ren Oinordekoekin, akordio honen zati xedagarrian zehazten diren 2 eta 3 zbk.dun finkek Udalaren jabetzakoa den Orobione atzeko lursaila beste horrenbeste metro karratutako lursailarengatik trukatzea, aurrez beharrezko den honen bakanketa egin ondoren.

3.- Aurreko puntuan adierazten den trukaketa egin ahal izateko urte beteko epea igaroko denez, lursail trukaketa hau egiteko Udala eta lursail partikularren arteko borondatea jasoko duen hitzarmen bat izenpetzea.

4.- Akordio hauek behar bezala betetzeko beharrezko diren dokumentuak izenpetzeko Alkatea ahalmentzea.

Une honetan Inazio Estensoro Eskisabel eta Angel Olaso Villalba zinegotziak bertaratzen dira.

III.- ELOSEGI 30EKO UDAL JABETZAKO LOKALAK ENKANTERA ATERATZEA.-

Udalak Elosegi 30-bis zenbakia zeraman etxea erosi zuen etxeko behe, lehen eta bigarren solairuak erosituz, 1993 eta 1994 urteetan. Erosketa horien helburua etxe zahar hura bota eta kalea zabaltzea izan zen, eta etxea erosi ondoren hala egin zen.

Elosegi 30-bis etxea, ordea, Elosegi 30 etxeari erantsita zegoen eta azken honetan txoko txiki batzuen zituen, eta Elosegi 30-bis etxea bota zenean Udala txoko txiki horiekin gelditu zen. Gainera, esan behar da, Elosegi 30-bis etxea bota eta gero, txoko txiki horiek bertara heltzeko biderik ez dutela, eta berez erabilera aprobetxamendua ondoko etxebizitzetakoentzako izango lukeela soil soilik. Beraz gaur egungo egoeran, gastua suposatzen du inolako abantailarik gabe, eta hori kontutan izanda, enkante bidez besterenganatzea planteatzen da.

Hau horrela, 100 €tako prezioan eta gastuak esleitzaileren kontura izatearen baldintzetan, enkantera ateratzea proposatzen da.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du berak ez daukala oso garbi hori enkantera ateratzearena oso egokia ote den eta beraz abstenitu egingo dela.

Osoko Bilkurak, aldeko 8 botu (EAJ, EA, PP), aurkako boturik gabe eta abstentzio batez (PSE-EE), proposamena onartzea erabakitzen du.

IV.- FUTBOL ZELAIKO OBREN ESLEIPENA.-

Udal Osoko Bilkura honek, Futbol Zelaiko birmoldaketa eta aldagea berriak proiektuetako lanak lehiaketa bidez esleitzeko deialdia egitea erabaki zuen, 2004ko otsailaren 26an egindako batzaraldian.

Eskeintzak aurkezteko ezarritako denboraldian lau eskeintza jaso ziren, Manuel Etxaide, S.L., Construcciones Miguel Imaz, S.A., Reformas y Contratas de Gipuzkoa, S.L. eta Greyhound, S.L., eta hauetatik, baldintza pleguan finkatutako erizpideen arabera, udalarentzat abantailatsuena delako, esleipena Miguel Imaz, S.A. enpresaren alde egitea proposatzen da. Miguel Imaz, S.A.ren ekonomi eskeintza 479.574,03 €tako da.

Alkateak esaten du, Miguel Imaz, S.A.k baldintza plegauri lotutako eskeintza aurkezteaz gain, proiektuari hobekuntza bat egitea planteatzen duela. Planteatzen den hobekuntza hori mendi aldeko harri-lubeta (eskoilera) mugitu eta pista 2 edo 3 metro mendi aldera eramatea izango litzateke. Hobekuntza honek prezioan 50.425,- eurotako gehikuntza suposatuko luke, dena den, guztira oinarritzko lizitazio prezioaren barne geraratuko litzateke.

Gehitzen du Alkateak, esleipena hobekuntza hau barne egitea proposatzen dela.

Serna zinegotziak (PSE-EE) baldintza pleguetan zehaztutako proposamenetik ezberdina den zerbait esleitzeak ez al duen arazorik ekarriko galdetzen du.

Alkateak erantzuten dio ezetz zeren baldintza pleguan zehaztutako proiektua ere Miguel Imazi esleitu dakiokela.

Guzti honen ondoren bozketara jartzen da gaia eta Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuarekin, Futbol Zelaiko birmoldaketa eta aldagea berriak proiektuetako lanak, Miguel Imaz, S.A.ri esleitzea erabakitzen du, enpresak proposatutako hobekuntza barne, eta guztira bostehun eta hogeita bederatzi mila bederatzihun eta laurogeita hemeretzi euro eta hiru zentimotan (529.999,03 €).

V.- ANGEL BERROETA ETA KONTXI SANTXIZEN HERIOTZEN AURREAN MOZIOA.-

Mozio hau Irantzu Amundarainek aurkeztu du Areria Zutabearen izenean eta Osoko Bilkurara Alkatetzak ekarri du.

Mozioak honela dio:

“ARERIA ZUTABEA Udal Taldeak, Larunbatean Iruñean Polizia Espainiarrak eraildako Angel Berroeta eta igandean Ertzaintzaren karga baten ondorioz hil zen Kontxi Santxiz hernaniarraren heriotzaren aurrean, OSOKO UDAL BATZARRA burutzeko eskaria egiten du

ZIOA

Iruñean espainiar poliziak tiroz erail zuen Angel Berroeta euskal herritarraren oroimenez elgarretaratzea burutzen ari zela, Kontxi Santxiz hernaniarra hil zuen Ertzaintzak, buruturiko karga polizialaren ondorioz bihotzekoa jasan duenean.

Madrilgo atentatuen ondorenean, PP-k zuzendu eta PNV, EA, IU eta Aralarren babesarekin ezker abertzalearen aurka burutu den kriminalizazioaren biktima dira Angel Berroeta eta Kontxi Santxiz. PP-k zuzenduriko espainiar poliziak eta PNV-k zuzenduriko espainiar polizia autonomikoak orpoz orpo, bi euskal herritar, bi militante abertzalaren bizitzak eraman dituzte aurretik.

Iruñean, PP-k buruturiko estatu krimenak, Hernanik izan du jarraipean, Ertzaintzak modu baketsuan aipatu krimen hori salatzen ari ziren herritarrak eraso zituenean.

Larritasun goreneko gertaera hauen aurrean, ARERIA ZUTABEA Udal Taldeak, honako puntu hauek aurkeztu nahi ditu, LAZKAOKo Osoko Udal Batzarrean bertan onartuak izan daitezen:

- 1.- Udal honek, bere dolumin sentituenak helarazi nahi dizkie Angel Berroeta eta Kontxi Santxiz euskal herritarren senitarteko eta lagunei, jasan duten galera konponezinagatik.
- 2.- Udal honek gogorki salatu nahi du, larunbatean Iruñean eta igandean Hernanin Polizia Nazionalaren tiroz eta Ertzaintzaren karga baten ondorioz hil ziren Angel Berroeta eta Kontxi Santxiz-en hilketak eta zuzenean PP eta PNV-ri eta bereziki Ibarretxe, Imaz, eta Balzari egozten die gertaera honen ardura politiko nagusia.
- 3.- Azken egun hauetan, ezker abertzalearen kriminalizazio lanetan, eta bere ondorioen izkutatzean (bereziki Angel eta Kontxiren hilketak) hainbat komunikabidek izan duten jarrera salatzen du Udal honek.
- 4.- Udal honek, espainiarrei men egin eta Euskal Herriaren eta herritarren eskubideak zanpatzen jarraitzeak, bi estatuen eta gure herriaren arteko gatazka luzatzea besterik ekarriko ez duenaz ohartarazi nahi ditu Ibarretxe eta PNV.
- 5.- Udal honen iritziz, Euskal Herriaren aitortza eta erabakiaren errespetutik soilik etorriko da herri honetara askatasuna eta bakea. Autodeterminazio eskubidea eta herrien bu-

rujabetza da hemen eta mundu guztian, gatazka politikoen konponbiderako giltza, irtenbide partidista eta zatikatzaile berrituak alde batera utzita.

6.- Bestalde, Udal honek, egun hauetan Angel Berroeta eta Kontxi Santxiz-en hilketa salatzeko egiten diren mobilizazio guztiekin bat egiten du eta bereietan parte hartzeko deia luzatzen die herritarrei."

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du analisi sinplea eta ez oso serioa iruditzen zaiola. Esaten du baita ere pentsatzen duela testimonialki aurkeztuko zutela mozioa, zeren termino hauetan mozioa onartuko dutela pentsatzen badute, eta gaineraten du ez onartzeko aurkeztuko zutela.

Jendartetik, mozioaren aurkezleek Estensorok esandakoari erantzuten diete.

Alkateak esaten du testua bera kalifikatzen dela eta ez duela merezi eztabaidan sartzea. Gaineraten du, beraien jarrera koherentzi baten barruan izan dela uste duela, bai indarkeria eza, elkarrizketa eta akordioa defenditzea bai Euskal Herrian, bai Madrilgo atentatu gertatu zenean, bai Iraken, uste duela indarkeri guztiak gaitzetsi zirela eta berretsi beraien erizpide bakarra hori dela.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du Angel Berroetaren kasuan erahilketa gaitzesten dutela eta Kontxi Santxizen kasuan deitoratzen dutela gertatutakoa, baina mozio honekin ez daudela ados.

Olaso zinegotziak (PP) esaten du ados dagoela mozioaren lehenengo puntuarekin baina ez horrela gainontzekoarekin. Baita ere esaten du biktimen senitartekoei doluminak ematen dizkiela.

Alkateak esaten du beraiek ere ados daudela biktemen senitartekoei doluminak ematearekin.

Guzti honen ondoren, Osoko Bilkurak, aldeko bederatzi botu eta aurkako boturik gabe, zera erabakitzen du:

1.- Mozioa ez onartzea.

2.- Angel Berroeta eta Kontxi Santxizen senitartekoei doluminak ematea.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak hogeitabost gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.